

# Bilbo

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko idazkariak

## ADIERAZTEN DU:

Gaur egun **Bilbo** dela ofizialki *Bilbao* izena duen udalaren euskal izena.

Erakunde honek 1983an egindako irizpena (dokumentu honi atxikirik doana) indarrean dagoela, *Bilbo* baita Akademiak 2005ean berretsitako *Bizkaiko Herri Izendegia* deituriko 145. arauan ageri den izena. Arau horretan bertan, bosgarren oin-oharrean, zehazten da *Bilbo* dela euskal izen arautua eta *Bilbao*, berriz, erdaraz gorde den euskal izen zaharra.

Aurreko agirian azaltzen den bezala, *Bilbao* izena euskarazkoa bada ere aspaldikotzat jo daiteke, erromantzez *Cesaraugusta* edo *Lisbona* bezala, eta horregatik ez da egokia hiria euskaraz izendatzeko, *Bilbo* izan baita mendebaldeko euskal idazleek eta hiztunek erabilitako aldaera. Jakina denez, izenen arautzean literatura eta tradizioa aztertzen dira, hor ageri diren aldaerei lehentasuna emanez. *Bilbao*, erdarazko testuetara mugatzen da eta ez da ohikoa mendebaldeko euskal idazleen artean.

*Bilbo* izan da, gutxitan bada ere, administrazioek euskaraz erabili duten izena, 1865ean Bizkaiko Foru Aldundiak<sup>1</sup> marinelei egindako ondoko adierazpenean ikus daitekeen bezala:

«Vizcaico Diputaciōe Generalac orain lelengo sei illabetetan erregue-ontzietan servietara duazan Mariñelay zucenduten deutsan VERBA-ALDIJA.

**Bilbon** aprillaren 2 jan 1865 garren urtian.

VIZCAITAR VOLUNTARIJUAC:

Dempora asco da Vizcaico Señorijo leijal eta nobliac bialduten ez ditubala bere semiac Erregue-ontzietan servietara, gure Erreguiña eta Señora Doña Isabel bigarrenac alan aguindu ez dabelaco».

Dokumentu honi atxikirik doan aurreko agirian bildutako testigantzez gain, hona proposamenaren alde mintzo diren XIX. mendeko beste zenbait lekukotasun aipagarri eta argigarri: baina lekukotasun aipagarri gisa XIX. mendeko hauek gehitzen ahal dira:

*Urteko Domeka Guztijetarako Berbaldi Ikasbidekuak*, Pedro Astarloa, 1818:

BILBON: D Pedro Apraizen moldategian.1818. Biar dirian eskubi-diakaz. Salzen da lenengo liburubagaz, **Bilboko** San Franziskuko atarte, edo Porterijan.

Baña arako geitu jakonian bere jentia, eta gertu eguanian, aurrez aurre arpegi emon eutsen Franzesai, ikusi zana legez **Bilbo**, Vitorija, Tolosa, Yanci, Irun, Vera, Ascain, eta beste leku askotan, arerijuak España guztitik urten artian.

*San Ignazio Loiolakoaren Bizitza Laburtua Euskaraz eta Gaztelaniaz*, Jose Ignacio Arana, 1872:

Bear diran baimenakin. **Bilbon**. Larunbe anaien moldiztegian. Ronda-5.

*Eguiquera onerazcoac*, 1885:

**Bilbon**. Elizalde 1885

*Baratzan*, Martzelino Soroa Lasa, 1886:

<sup>1</sup> Bizkaiko Foru Artxiboa, Administrazioa Atalean, "Ordenes y Circulares de la Diputación, Reales Cédulas y escrituras originales", 59 bis (1861-1867) erreferentziapean.

...ez **Bilbon**, ez Tolosan. Gu beti baserriñ laneen.

*Oraciñosco Apostolotasuna*. 1889:

**Bilbon**. Emperaile. 1889.

*Cristiñau Doctrinia*: Menéndez de Luarc. 1890 eta 1891:

**Bilbon**. Delmas. 1890.

1891 **Bilbon** Delmas-en alargunaren seme nagosiyaren moldate-guiyan.

*Cristinaubaren Doctrinariaren esplicacina eusqueras*. D. Martin de Arzadun, 1890:

**Bilbon**. Viuda de J. Elizalden moldeteguijan 1890 garren urtian.

*Bein da betiko*, R. M. Azkue, 1893:

Zazpi aizta onek, orain legez erdal-erri bik menderatu bearrean, beste euron beste erdalerrik eurentzakotu ta bere, zazpirok biotzez da egiaz izango doguz beti bat: Euskal-erria. **Bilbon**, 1892-garren urtean.

*Vizcaytik Bizkaira*, R. M. Azkue, 1895:

**Bilbon**, 1895 garren urtian.

*Parnasorako bidea*, Eusebio Maria D. Azkue, 1896:

**Bilbon** barruan erosten dituz pozarren emaztegeiak mutilantzako terziopeloa ...

Deiak bota ta, **Bilbon** eskondu zirean.

Pozik ioazan biak Maurolati goraelduteko goizean goizeti **Bilbora**...

Uts barik ioateko biaramonean **Bilbora** anae biak itzaltasunean.

*Batxi guzur*, R. M. Azkue, 1897:

Lenago **Bilbo** esan zenduan, on Lekeitio.

**Bilbora** yuaten da botika gorritan.

*Auñamendiko Lorea*, Txomin Agirre, 1898:

**Bilbon** Euskalzale Moldagintzan 1898.

Felipe Areresebeitia, 1880-1905:

Eguzkiyaren argiya-baño Argiyagua da bera; Zoriyonian **Bilbo**-noblian Agertu-zan, bai, lurrera.

Noz etorriko begira estu Egon da **Bilbo** andia.

Azaldutakoaren ondorioz,

ZIURTATZEN DU:

Bizkaiko hiriburuaren euskal izena **Bilbo** dela.

Bilbon, 2012ko ekainaren 21ean.

O. E. / Vº Bº  
Andres Iñigo  
Onomastika batzordeko burua